

zuk jarri ideia,
guk tresnak jarriko ditugu



autoenplegu-zerbitzuak

 **BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDAZIOA**
Ledesma 4-4.a 48001 Bilbo • Tel: 94 423 26 12

www.bbk.es


gaztelanbidean
bbk

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
beartza

2006ko OTSAILA
85. zkia. DOAN

**Luzaideko
inauteria**

Santa Eskea

Punto de mira

Loli Benitez

*"Andra guztiei
esango nieke
kirola egiteko"*



PERTSONAK

Ahora con 12 y 16 años también puedes entrar en Begoñazpi Ikastola en ESO y Bachillerato. Una etapa educativa especialmente importante para alcanzar con éxito tus objetivos profesionales y personales.

Begoñazpi Ikastola, un proyecto singular comprometido con las personas.

Orain Begoñazpi Ikastolan 12 urte gaz DBHn eta 16 urte gaz Batxilerrean sartu zaitezke. Aldi hezigarri hau zeure helburuak ezebe helburuak be arrakastaz lortzeko oso garrantzitsua izango da.

Begoñazpi Ikastola, pertsonak arduratsua dan aparteko proiektua.



Jesús Galíndez, 15 - 48004 BILBAO - Tel 94 400 53 00 - Fax 94 400 53 01 www.begonazpi.net - e-mail: ikastola@begonazpi.net

Katezarra txakolindegia

Ez dira urte asko argazki hori egin zanik. Katezarra baserria eta txakolindegia Santo Domingo edo Egirletarako aldatzean egoan, igokeran ezkerretara. Izenak berak diñoen lez, alderdi horretan kate bat, bide saria kobretako lekua, egon zan. Txakolindegi moduan urte asko emon eta gero, azkenaldion taberna hutsa zan, harik eta 1990ko hamarkadan bota eben arte. Geroago, baserri itxurako jatetxea eraiki eben eta 2002an zabaldu egin eben, 'Kate Zaharra' izenagaz.

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Txurdinagako trafiko kontrola	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Oterots mendia	24
▶ Gaztediren 55. urteurrena	10	▶ Hezkuntza	26
▶ Santa Eskea	12	▶ Punto de mira	28
▶ Elkarriketa: Loli Benitez	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Kontue dabil hamen ingeruen bat dagoala Bertonen eskribiten dabena ez jakona ostiripe entenditen. Da pentsaten dot neugatik dabilazela, baie, zer gure dozue esatie neska-mutilok? Entendidu, Bertonekoak kontaten dauriezenak gehidaxo kostaten jata entendidutie beronek kontaten dauriezenak baino.

Ze, entenditen dozue porrejenploan Santutxuko 120 lagun jantzan paratie han Pirineoan dagoan herri bateko jantzan bat eitten da gero Santutxuko festatan fandango bat eitteko dozena erdi bat lagun justo-justo paratie, ganera danak andrak. Fandangoa parejan eitteko ez zan ixiten ala?

Da entenditen dozue zelan Txurdinagan eukindde trafikoa gobernateko zentrointeligensiatotala hamekoa komunidadeautonomoko guztiokoa, Txurdinagako zubidixen ingeruen montaten direzen trafikoa kakaoak zelan montaten direzen? Nik neuk señalak be gero ta gitxidxago entenditen dotez.

Entendidu be, entendidu biher da Santa Ageda kantaten urteten daurien guztidixen artien zelan daoan bakarrak zer kantaten daurien entenditen daurienak eta hareik kantaten jakin ez. Kantaten dana entenditeko neurona guztidixek gastau ta solfeo apur bet ikisteko be ez daurie entendimendurik eukin?

Eta neuk bakarrik ez, horreik musikoak be ezebe-ezebe-ezebe entendidu ezinien ibiliko direz seguramentien uzena imi-

nitte, hareiri okurridute da beste batzueri ezebe okurridu barik, hareik hartu eta kobreu gure ixitie be,... Honeik gauzok ez direz bape entenditekoak. Baten batek bai entendidu, numeroak diruenak.

Da leidu, ta entenditie kostaten da zelan bizi guztidixen Rio-delaplata Argentinan daoala entzunde oin honeik bilbainook zelan diñoorien euren inbentau zeuriela, errekan erdidixen islie gure zeurielakoan ta kapritxoak pagateko diruek zegoazanak da eze zegoazanak gastatu ta egin. Baie aspaldi preguntau dou hamen ba! Bilbainoori inok entenditen dotzie? Eurek be entenditen daurie zertzuk eitten dauriezan? Da hori islie ein ta kendu egin zeurien? Non dago ba? Ez dakit ba, baie honeik Bertonekoak antxoia ein dauriela pentsaten dot. Oin bilbainoori akordazo behin islie eukin zeuriela da oin gure ixingo daurie Bilbo guztidixe isla ein, edo txarrao iguel, Venezian muzuko bat baie Venezia baino handidixegoa, da kapaz direz Zazpi Kaliek eitteko Zazpi kanalak. Da geuri be eingo doskue ederra, Santo Domingoko kataratak da Boluetako puertodeportiboia... Kuidao, kuidao... ze Otxarkoagan iminten dabiltazen asensoriek salmoien biberoak eitteko ixingo direz iguel...

Tire ba, arrazoie! Neuk be ez dot ezebe entenditen, asike honarte ailegau bazarie ez eizue hau leidu.

Firmatue: Ander Stan

GURE BAZTERRAK

GARAIZAR BIDEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizatearen bihotzean, gaur egun Txurdinaga izezagaz ezagun dan auzoan dogu Garaizar Bidea. Egin-eginean bere, bide hau topatzen dogu Begoñako Arabellan, Egirleta ganaren azpian, eta Begoñazpi ikastolatik hurrean. Bide honek batzen ditu Jesus Galindez etorbidea eta Zabalbide kalearen goiko aldea, Zumalakarregi Jeneralaren ikastetxearen kontra.


Garaizar izena emon jakon bide honeri 1930. urtean han egoan baserria gomutarazoteko; beti be, badago zeresanik izen honen eretzean. Alde batetik, badagoz baserriaren argazkiak, eta esan geinke 'garai' toki-izenak aitatu nahi dauala

goian dagoan aurkintza, eta, horretara izatezkerok, bertan beharko leuke Garaibarri edo edu horretako beste eraikuntzaren bat, baina, nik dakidala, ez dago horrelakorik.

Argazkirik ez balego, ostera, etimologiari begiratuta, esan geinke 'garai' bere izan leitekeala eraikuntza bat, gehienetan baserriaren etxe nagusitik hurrean dagoana, eta bertan lastoa eta osterantzeko jangaiak eta abar gordetzeko, ezik 'garai' bere bada euskeraz erderazko 'hórreo'ren parekoa.

Azken baten, eta mitologiari erreparatzaka, izena baserriaren izenetik datorrela esatea baino ez dogu.

GOTZON LOBERA REVILLA



ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturrriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Telefonoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
BI-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2006ko otsaila - 85. zkia.



Auto gidariak begiradapean

TXURDINAGAN DAGO EAEKO TRAFIKOA KONTROLATZEN DUEN ZENTROA

Euskadiko Trafikoaren Kudeaketarako Zentroa Txurdinagan dago. Bertatik Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako errepideak kontrolatzen dituzte kamera bidez, bidaia ona izan dezagun. Pantaila erraldoi baten 76 bide ikusgai daude.

Testua: Iratxe Ruiz

Argazkiak: Mikel Arrazola / Eusko Jaurlaritzaren argazki artxiboa

Santutxu eta Txurdinaga bereizten dituen zubiaren ondoran dago, Ertzaintzaren eraikinaren ondoan. Hala eta guztiz ere, Euskal Erkidego Autonomoko (EAE) trafikoaren kudeaketaz arduratzen den zentro horrek ez dauka Eusko Jaurlaritzaren Barne sailarekin menpekotasunik. Eraikin berria da, zabalera, txukuna eta teknologi berriez hornituta. Ordenagailuak eta kamerak dira nagusi. Gainera, bertan SOS Deiak-eko larrialdiak ere kudeatzen dituzte.

Ekainaren 8an martxan jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko errepideak zaintzeko zerbitzu hori. Duda-mudan egon ziren, Durangon ala Txurdinagan kokatzea, eta azkenean Mahatserrira ekarri zuten.

PANTAILA ERRALDOIA

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako errepideetako bazterretan

78 kamera daude. Horiek guztiak beheko solairuan dagoen horma erraldoian islatuta agertzen dira. Neurriak harrigarriak dira: 6,20 metroko zabalera eta 4,20 metroko luzeera. Barnean tamaina desberdineko pantailatxoak daude, errepide nagusiak kontrolatzen laguntzeko. Zuntz optikoaren bidez momentu errealeko-irudiak islatzen dira paretan.

Istripuren bat baldin badago gidariei jakinarazten zaie, gainera, paneletako mezuak idazten dituzte (udan euskaraz eta erdaraz ez ezik frantsesez eta ingelesezkoak irakur daitezke, turistei zuzenduta). Segurtasuna eskatzeko edota saihezbideak gomendatzeko dira gehienak ('Segurtasun uhala jarri', 'Segurtasun tarte zaindu', esaterako). Bide nagusietan une oro dagoen trafiko zaintzen dute, egunean hogeita lau ordutan eta urtean 365 egune-



erabakitzeke bilerak egiten dituzte eta Barne saileko adituek dute azken hitza.

Aizpuruak dioenez, puntako zerbitzu honen helburua, "trafikoa arintzea eta, ahal den neurrian, istripuak murriztea da". Datuak alde dituzte, 2005ean %7 gutxitu zen hiru probintzietako errepideetan hildakoen kopurua.

Honenbestez, jakin dezazuen, EAEko errepideetatik barrena bidaiatu aurretik aipatu telefonoan eta www.euskadi.net/trafikoa web gunean kontsultatu ahal duzuela momentuko egoera zein den. Bidaia ona izan dezazuela!

tan. Autobideetan eta errepideetan sortzen dira arazo larrienak, (A8 eta A68an) baita Bilboko sarrera-irteeretan ere.

Trafiko ingeniariak, prentsako adituek, informatikariak eta operadoreak batera egiten dute lan. Telefono operadoreek 902 112 088 telefono zenbakira deitzen duten hiritarrei erantzuten dizkiete. Auto ilarak edo istripurik dagoen galdetzeko aipatu telefona dugu eskuragarri denok.

DEIAK

Trafikoaren Kudeaketarako Euskadiko Zentroaren zuzendaria Jon Aizpuru da. Berak azaldu digunez eguraldiaren aurreikuspenen zain bizi dira, elurteekin batera langile zenbakia biderkatu behar baitute. Joan den Urtarrilaren 27a ez dute luzaroan ahaztuko. Orduan izan zen azken elurte handia. Ondorioz, hoguei behargin jarri behar izan zituzten telefonoetan egun-egun zehar jasotako 19.000 deiei erantzuteko. 19.000, bai.

Halaber, A8an Gipuzkoan izandako luiziak kezka larria piztu zuela aitortu digu. Zenbait ibilgailu lur eta harri azpian geratu zen. Zauriturik ez zegoela baieztatu ondoren, errepide hura hartuko zuten gidariak ohartu beharra zegoen. Paneletan mezuak idatzi eta Ertzaintzarekin harremanetan jarri ziren berehala, saihebidetarako atondu zituzten. Larrialdietako protokoloa zelan abiatu



Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

SUGER TABERNA Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BILBO ROCK ARETOAN

MARTXOAREN 24a ostirala 19:30ean
KONTZERTUA

THE USKI'S
Itxosun zarati

ETXE
Zatoz nirekin

APIRILAREN 7a ostirala 19:30ean
IAIALDIA

bertin SOUND RAP SYSTEM

Uhai Iturriaga - Aritz Sound System - Igor Elortza
Wanka - Jon Maia - Daddy Jeff - DZ

APIRILAREN 28a ostirala 19:30ean
KOMIKLIJA

ander eta GRAUN

Inaki Martiarena "mattin" - Ixabel Agirresarobe
Egoitz Lasa - Joxe Mikel Gorostidi

MAIATZAREN 5a ostirala 19:30ean
PERFORMANCE

mundua LO dagoen bitartean

Patxi Zubizarreta - Nerea Garmendia - Iban Garate - Agurne Anasagasti
Mikel Losada - Felipe Barandiaran - Joserra Senperena - Ane Muñoz

2 EURO
OST EUROKO DONA LAU
OSTIA
GAZTE TXULO
ALDIZKARIORRA
HIRU HILEKO
HARDIEN ZA
DOAN

Bilbao **BILBAO**

BEGOÑA ETA EUSKERA

Lehenago baten luze eta zabal jardun genuen Uribitarteren gainean. Begoñako lur zati hori lehenengo uharte bihurtu -kanal berria induskatuta- eta berrehun urte geroago Abandoko ibarrera lotu zuten, ibai zaharra lehortuta. Orain kanal berri horren gaineko datu batzuk dakartzagu, Rio de la Plata esaten zioten ubide berri horren gaineko datuak alegia.


ZIDARRAREN IBAIA ETA URIBITARTE

BERTONeko 63. zenbakian Uribitarteren ibilbidea hizpide eduki genuen. Ibilbide berba erabili dugu, nahita erabili ere, Begoñako lur sail hori Ibaizabaleko eskuin ibarrean zegoelako 1650 urtean eta 200 urte geroago, 1870tik aurrera, ezker aldeko ibarrean zetzan, gaur egun dagoen bezala.

Zelan gertatu zen? 1651ko uriola beldurgarrien ondorioa izan zen. Antzekorik atzera be ez gertatzeko, Bilboko Udalak eta Bilboko Kontsulatuak -merkatari eta armadoreen elkartea- San Agustinen aurrean (gaur egungo Udaletxea) ubide berria zabaltea erabaki zuten. Kanal berria gaur egungoa da, gutxi gorabehera, eta artez egin zuten Salberaino. Baina ibaiaren bide zaharra ez zuten itxi eta erdian lur zati bat gelditu zen. Bilboko aldeko herritarrek berehala jarri zioten izena, euren hizkuntza erabiliz: Uribitarte. Izan ere, urbitarte esaten zieten Ibaizabaleko uhartei. Uribitarte 1870an lotu zuten ezker ibarrera, ibai zaharra lehortuz.



Goian: Uribitarte uhartea XIX. mendean.
Behean: Bilboko itsasadarra mapa ingeles baten. Bilbotik beherago, Uribitarte.



KANALA

Itsasadarra zabalik eta erabilgarri edukitzeko ardura Kontsulatuarena zen. Ander Ros ikertzaileak 1782ko agiri

bat helarazi digu Kontsulatuaren aginduz kanal berri hori sakon eta garbi edukitzeko eginbeharren gainean. Izan ere, testuak hikamikarik bazela aitortzen du. Kontsulatuako arduradunek honelaxe idatzi zuten: "Cansados los individuos de esta comunidad con los continuos pareceres de diferentes capitanes y gente de mar de este Puerto y maestros de obras de esta villa y Señorío, de si le era o no útil al

comercio y dicho consulado la continuación de la avertura y limpieza del río de la plata", adituen iritziak eskatzea erabaki zuten. Río de la plata izenarekin esaten zioten, adituek diotenez dirutza itzela gastatu behar izan zutelako kanal berri hori zabalteko: 1660an amaitu zuten eta lau metro sakon egin zuten, ehun mila dukat gastatuta. Dirutza galanta, sasoi hartan.

Dirudienez, urak pasatzeko behar bezain sakon egin zuten kanal berria baina ez nabigazioa segurtasunez egiteko beste. Egia esanda, 1780an bertan eman zioten Felipe

Kareagari kanala zabalteko, sakonago egiteko eta garbitzeko ardura. Baina orduan zalantza handien artean erabaki zutena, urte bi geroago bertan behera utzi zuten, artean itsasgizon eta hargin gehienak iritzi batekoak zirelako.

Barku kapitain batzuek txostena idatzi zuten 1782ko apirilean. Besteak beste, Juan Mellida, Manuel Momeñe, Joseph Ignazio Azpilaga eta Antonio Abriskietak izenpetu zuten. Euren iritzi, lehenengo-lehenengo San Agustin aurreko txurroak (ibaiko haitzak) 'ahalik eta gehien' apurtu behar zituzten, "que es la primera obra que se debe de hacer". Gero kanala Campo Volantinerantz ahal bezain beste zabaldu eta garbitu "el churro de la entrada del río de la Plata".

Baina kanala zabaltea delineatuta zegoen bezala "sería mui perjudicial para subir y bajar dichas embarcaciones a la sirga por estar mui separada del muelle y no podrían gobernar las referidas embarcaciones con la minima avenida". Izan ere, Bilboraino igotzen ziren barku eta gabarra asko lehorretik txikote batetik tiraka eramaten zituzten. Sarritan emakumeak izaten ziren soketatik tira egiten zutenak, baina beste batzuetan gizonak eta idiek ere egiten zuten. Aldeko mareak aprobetxatzen zituzten: marea gora Olabeagatik Bilbora eta marea behera Bilbotik Olabeagara.

Beste obra batzuk gomendatu zituzten kapitainok, eta kanala sakonago ez egiteko eskatu zuten. Izan ere, sakonago egin ezker, "no solo sería inutil, sino que perjudicaría mucho la falta de agua en los muelles del Arenal y la plaza a no limpiar y enivelar el churro que se halla



Uribitarte 1870an, desagertu baino apur bat lehenago.

entre la carnisería de la caba y la botica [Deustuan], lo que sería mui costoso y perjudicial acaso al surgidero de Olabeaga". Beraz, kanala sakonago egiteak eta Deustuko txurro hori kentzeak Bilboko kaiak ur sakon barik lagako litzuzke edo, osterantzean, Olabeagakoak. Eta Olabeaga (Deustua eta Abando) barku handientzako Bilboko portua zen.

HARGINAK

1782ko apirilean Salvador Bakijano eta Juan Bautista Orueta harginek ere euren iritzia eman zuten. Txostenean aitortu zuten, egun haietako euriek eta elurteek ur emari handia eragin zioten Ibaizabali eta, ondorioz, ezin izan zituzten marea behe-rako markak ikusi. Hala ere, itsasadarrean zebiltzanez galdetuta, jakin zuten ez zela beharrezkoa kanal berria sakonago egitea, "pues nos aseguran que todas las gabarras que bienen cargadas de Olabeaga para esta villa a punta de marea, tienen que esperar en el churro de la Caba a que suba un poco la marea para poderlo pasar". Gero arazorik gabe

igotzen ziren Zidarraren ibaitik Areatzako kaietaraino. Eta berdin-berdin behe-rako bidea egiteko: "quando la marea ba mui baja pasan bien en dicho río de la plata y se quedan y detienen estancadas por falta de agua en el citado churro de la Caba".

Beraz, euren iritzi, arazo ez zegoen kanalean, Kabako txurroetan baino. Baina hori konpontzea "sería mui costoso y cuasi imposible por ser peña mui fuerte la que existe en aquel parage". Eta orduan egileetako baten izena airtu zuten: "por cuia razon

sin duda dejó de profundar lo más el yngeniero don Joseph crane que fue quien lo principio y dejó en el estado que se halla".

Eta kapitainek bezalaxe, Kabako eta San Agustineko txurroak desegin ezker, harginek uste zuten "resultaría quedar en seco los pataches y demás bageles en el río del arenal y sus riveras en todas las bajamareas". Eta kapitainekin bat egin zuten esanez san Agustineko txurroak apurtu behar zituztela eta horrela, segurue- nez, "tomarán su curso recto las aguas por la nueva avertura del río de la Plata y (...) mantendrán corriente con la rapidez de las crecidas arrojando toda la zaborra a la parte de Abando". Ibaietako urek zekarten zaborra Abandoko aldean pilatuko zen, beraz. Azkenean, kanala sakonago ez baina zabalago egiteko gomendatu zuten. Eta emaitzak onak ez baziren, Kontsulatuak onartu beharko luke "que esta canal no le puede ser util para cosa alguna, y que se be en precisión de acudir a la antigua canal", nahiz eta horrek ere gastu handiak eragin.



Kalderapeko euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

SANTA ESKEAREN ARGAZKI BILDUMA

Zezeilaren 4an koplak, trikiti doinu eta makila hotsez bete ziren Arbolantxako bazterrak



Azken urteotan ez bezala, aurten zezeilaren 4an egin dute Begoñako Santa Eskea. Zapatua zen eta ederto igarri zen, giro ederra zabaldu zen eta. Txurdinagako Maiuki tabernan hasi eta gero Otxarkoaga gaineko baserrietara jo zuten hogeita bost laguneko multzoak. Etxarte, Atxeta, Arbolantxagane, Etxezuri, Goikoetxe, Etxepinto eta Irumeneta izan ziren eguneko 'geltokiak', Otxarkoagako 'Josetxu' garagardotegian bazkaria egin aurretik.

BERTON DUGU



BERTSOLARIAK

Beharrean hasi baino lehen, Etxarte baserriaren kanpoaldean, Matxalen Zabaljauregi, Oihana Bartra eta Iñaki Aurrekoetxea. Gainera, Joxin Iturrioz eta Mikel Galarzak ere tarteka-marteka koplatan jardun zuten, baita Tasio Erkiziak ere.

2006ko otsaila - 85. zkia.



ETXARTE BIS

Etxarteko beste etxebizitzan Carmen eta Angelines Llona ahiztak bizi dira. Hemen koplak, makila hotsak, txakolina eta txorizoaz gain, dantza egiteko modua be izan zen. Begiratu erretratua!



ETXARTE

Baserrri hori Santa Marinarako bidean dago eta etxebizitza bi dauzka. Lehenengoan Jose Etxarte eta andre Susana egon ziren zain. Lehenengoz entzun zen egun osoko lelo nagusia: 'Bedeinkatua izan daitela, etxe honetako jentea, pobre ta umilde gabizentzat, badeizu borondatea'.



ATXETA

Etxartetik bera Justubidetik Atxeta baserrira heldu zen tropela. Hantxe zain, Martina Aurre etxeko andrea topatu zuten. Urtero lez, seme Kepa Legina presoarentzat izan ziren koplak gehienak.

santutxuko Iturriaga 96.
herriko taberna
 Gosari bereziak:
 Kalea + pintxoa 1,50 €.



Euskal Herria
AURRERA!!

Garaizar



JESUS GARINDEZ, Nº 10
 Tlf: 94 473 02 25 - GARAIZAR - BILBO

A gapi

Dekorazioa eta eskaiola
 Sabai akustikoak eta eskaioalazko dekorazio deribatuenak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ezk
 Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
 SANTUTXU - 48006 BILBO

BERTON DUGU

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

LOLI BENITEZ

"Andra guztiei esango nieke kirola egiteko"



Bizitza osoa Boluetan emanda, korrikalaria, ama, langilea... dena 'ontzi txikian' gordeta, lurrin onenak bezalaxe. Agian hirutan Santutxuko Sei Izar herri krosaren garaile izan arren ez da oso ezaguna izango, berak horri ez badio garrantzirik ematen ere, baina denbora tarte oso laburrean bere garaipentxoak izan ditu. Duela bost urte hasi zen eta gaur egun mendi maratoietan ere egiten du karra.

*Testua: Ixaso Perez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

ARBOLANTXAGANE

Etxebarriko mugan dago Arbolantxagane baserria, troka baten sartuta, eta hantxe egin zuten hurrengo bisita. Txokolate, txakolin eta kiwiz saritu zituzten Mikaela Telletxeak eta familiarrek santa eskeko lagunak. Hemen ez zen bete base- rri gehienetako 'hiru tx-en legea': txokolatea, txakolina eta txorizoa. Eta, jakina, dantzan be egin zuten.



ETXEZURI

Martin Mentxakatorrerenean geldialdi laburra egin zuten bisitariok, gizona bazkaltzen zegoen eta. Hala ere, kopletarako tartea izan zen.



ETXEPINTO

Josu Agirrerren baserrian be geldialdia egin zuen santa eskeko koadrila eta, seguruenez, bertan topatu zituzten entzulerik gazteenak. Ikusi argazkia bestela!



IRUMENETA

Juanita Larruzea etxeko andreak bero-bero hartu zituen santa eskeko lagunak. Mañu-kortagatik galdetu zuen, orain dela lau urte tropelagaz etorri zen. Argazkian, Benito Fiz santa eskeko bolt-seroagaz.



GOIKOETXE

Arbolantxako Goikoetxeko bisita beti da berezia, Begoñako santa eskea bertako etxeko jaun Karmelo Elorriagari esker errekuperatu delako. Hantxe egon zen, familiaz lagunduta, giro ederrean.



Seme-alaba bi dauzkazu, korrika egin eta lan egiten duzu... Eta zer gehiago?

Bada etxea txukun mantendu, kirola egin, hau da, entrenatu. Gero astear-te eta ostegunero spinning egiten dut.

Zure kabuz lehiatu egiten zara edota talde bateko kidea zara?

Hasiera batean nire kabuz hasi nintzen, federazioko fitxa nik ordaintzen nuela. Fitxa beharrezkoa da, osterantzean, lesionatuz gero egon zaitezke hilabete asko errehabilitazioaren zain. Orain Sopolako Munarri Atletismo taldean nago. Lasterketetan parte hartzen nuenean batekin eta bestearekin berba egin eta egun batean Sopolako jendeak esan zidan euren taldeko egiteko. Hor gehien bat jende nagusia (beteranoa) gaude. Herriko txiki eta gazte gutxi batzuk be badaude, baina esaterako, igande honetan (otsailak 19) Bizkaiko Kros Luzearen Txapelketan gu, emakume beteranook, senior mailan aritu behar izan ginen ez zegoelako inor maila horretan egun hartan. Neska bakarra dago seniorra dena, Inma Rafael. Sei Izar krosean elkarrekin batera sartu ginen.

Egoera zaila?

Horrela izaten ari da, Txapelketa Nagusirako puntuatzeko Bizkaikoan, Euskadikoan parte hartu behar dugu gure taldeak derrigortuta, eta horretan senior bezala egin behar dugu, beteranoak izan arren, taldeko lehenengo lau neskak puntuatzen dutelako. Hori bai, jendeak uste du beteranoak garenok ezin dugula eman gazteago batek eman dezakeena, eta oker dabilta.

Txikitatik arituko zinen kirola egiten, ezta?

Bai zera! Duela bost urte eta erdi hasiko nintzen korrika egiten...

Eta zenbat urte daukazu, lotsa-bakokeria ez bada?

45. Ba bai, beharbada apur bat berandu hasi nintzen. Izan ere, era tuntun batez hasi nintzen. Seme-alaba igeriketa taldean zeuden eta nik eroaten nituen egunero igeri egitera. Ni eta beste ama bi taldean

geunden, baina txapelketa baten edo bestean parte hartzea baino nahiago genuen itsas zeharkaldietan parte hartzea, seme-alabekin batera. Haietan normalean azkenetarikoa nintzen, kar, kar, nire erritmo geldoa zelako. Eta gero, egun batean, ama bi horiek eta hirurok Herri Krosean izena eman genuen. Ez genuen ia-ia ezer entrenatu, egun pare batez edo. Eta eguna helduta, horrenbeste disfrutatu nuen zegoen giroaz, konturatu barik lesionatu arte egin nuela korrika.

Larria?

Ez, bost bat hilabete geldirik eduki ninduen. Hasi nintzen korrika hainbat gauza garrantzitsu kontutan hartu barik, eta garrantzitsuenetako bat oinetako egokiak erabiltzea da. Jakina, egun hartan oinetako zahar batzuk jantzi nituen, eta ondorioa tendinitis bat izan zen. Baina hainbeste gustatu zitzaidan giroa, harrez gero korrikan segitu dudala!

Ez da ohikoa gurasoak, eta berenberegiz amak,, kirolean hastea. Are gutxiago, lehiaketan, zu hasi zaren adinarekin. Zein uste duzu izan daitekeela arrazoia?

Egia esan, horrela izaten da, bai. Ez dakit zergatik. Nagusia zarenean egiten duzu hobeto sentitzeko edo, nire kasuan behintzat asko gustatzen zaidalako, eta lanak sortzen didan estresa arintzeko laguntzen didalako. Lanetik irten eta korrikan hastearekin bat badirudi arazoez ahazten zarela. Gainera entretenigarria da. Lagun talde bat Txurdinagako kiroldegian batzen gara eta bagoaz. Baina hasieran bakarrik nentzen, beste ama biek utzi ziotelako korrika egiteari. Hori bai, orain ibiltzen garen lagun taldean emakume bakarra naiz. Gero lasterketetan jendea ezagutzen duzu, giro ona sortzen da.

Zu lehiaketan aritzen zara, ezta?

Bai, normalean bai, lehiatu egiten gara.

Eta plangintzarik egiten duzu?

Egin nahi dudan lasterketaren arbera... ba bai, eta orain, apirilaren 2rako gehien gustatzen zaizkidane-

tako bat prestatzen nabil, Gasteizko Maratoia hain zuzen, hobeto moldatzen naizelako distantzia luzeetako lasterketetan.

Zenbat maratoi egin dituzu?

Ufa! Lehen kontua neraman, baina orain, ez dakit esaten. Nahikotxo. Normalean esaten dute urtean bi edota hiru egin daitezkeela gehienez, osasun aldetik kalterik ez sortzeko, baina nik urtean hiru baino gehiago egin izan ditut. Iaz ezik, lesionatuta ibili nintzelako. Dena den, ez dut egiten eliteko korrikalari batek egin dezakeen prestakuntza. Ez ditut 180-200 km korrika egiten



astean, beste gauzen artean, astirik ez daukadalako eta ez naizelako horretara dedikatzen profesionalki. Hala ere, ondo ateratzen zaizkit! Egiten ditut errepideetakoak baita mendiko maratoiak ere. Mendikoak askoz gogorragoak dira, baina eramangarriagoak ere nolabait, paisaia ikusten zoazelako, erlojuari horrenbeste erreparatu barik, batzuetan oinez ere... ez dakit. Besteak baino politagoak izaten dira. Jaitsierak oso gogorrak. Irabazten dutenek oso ondo jaisten dute


Eta noiz egin zenuen zure lehenengo maratoia?

Egin nuen lehenengo maratoia 2002an izan zen, Bilboko gainera. Lasterketa laburragoak, 8, 10, 20 km-koak direnean, esaten duzu: 'tira ba! Zelan edo halan amaituko dut!'. Maratoi bat egitera zoazenean ordea, egin arte, ez dakizu gorputzak zelan erantzungo duen 30 kilometrotik aurrera. Eta, badaezpada ere, etxetik gertuen egitea pentsatu nuen. Amaitu ezinik gelditu ezkerro, gutxienez metroz itzuli ahal izateko etxera, kar, kar! Amaitu nuen, bai, pozik neuzkan sentsazioengatik. Baina ez nintzen guztiz gustura gelditu, ez zelako ia girorik lasterketan zehar, ez zegoen ia inor

bide bazterretan korrikalariak animatzeko. Maratoi tristea da. Aldiz, bazoaz Donostiako egitera eta, beste gauza batzuk izango dituzte, baina askoz gehiago animatzen dute. Denbora gutxi daraman maratoia Gasteizkoa bera da, Martin Fiz izena daramana. Hau da errepideko egiten dudana azken maratoia, eta apirila ostean hasten naiz mendikoak prestatzen, egunaren argia luzatzen doan heinean. Ez dut taldean egiten baizik eta egunero biltzen garen lagun talde berdina batu eta Pagasari edota Ganekogorta aldera joaten gara entrenatzeko, asteburuetan batez ere.

Emakumea eta kirola. Zelan ikusten duzu?

Ondo ikusten dut, ederto. Gu-
txienez niretzat pizgarria da.
Arazoa da gu, emakumeok
bigarren maila batean - atzeko
planoan - gaudela. Denetarako
eta denagatik. Lasterketa bade-
la Bilbon, ba beti aterako da
argazkian heldu den lehenengo
gizonezkoa. Hori da tipikoa
lasterketa guztietan. Adibide
argi bat ipiniko dizut. Nik 30
urte daramatzat lan egiten
enpresa baten, eta enpresa
horrek korrikalari elbarri bati
eta beste lankide bati ere, elas-
tikoan propaganda eramatearen
truke dirulaguntza ematen die
aspaldi. Eta aurton, lankide
batek aipatu zien bazegoela
emakume korrikalari bat bere
lantegian, eta lehenengo aldiz
lagunduko dit kirol jantziak
edota oinetakok erosten bere
propaganda eramatearen truke. Eta
instituzioen aldetiz, ezertxo ere ez.



Eta gertuen daukazu inguruan?
Ederto! Senarrak asko lagutzen
ditu. Lasterketetara lagundu, argaz-
kiak atera, euria egiten duenean
lasterketaren amaieran motxilare-
kin zain egoten zait, etxean lagun-
du ere asko... eta nirekin lantzean
behin korrika egiten hasi da. Seme-
alabek, bakoitzak bere kirolean
dihardu, beraz, gutxi.

Zer nahiago duzu: lehiaketa ala lasterketa herrikoiak?

Beno, egiten ditudan gehienak
herrikoiak dira. Federazioak anto-
latutakoak oso gutxi dira, punta-
tzeko balio dutenak soilik. Eta egia
esan, ia denak dira lasterketa herri-
koiak, gutxienezko prestakuntza

behar izan arren, maratoiatarako
kasu.

Sariak banatzerako orduan, parekotasuna lortu da?

Badira parekotasun hori ezarrita
dagoen lasterketak. Tira ba, beste
gauza da ematea gizonezkoentzat
10 sari eta emakumezkoek 5,
hauen partehartzea ez delako
%10era iristen. Logikoa iruditzen
ez zaidana da gizonezkoentzat
sariak dirutan andrazkoenen hala-
ko bi izatea.

Hori izan daiteke arrazoi bat hain neska gutxi egoteko?

Bada horrela dela esaten duena.
Nik uste dut parte hartu nahi duen
neskak, kirola egin nahi duen nes-
kak berdin egingo duela, saria gora
behera. Hori bai, gero egoera

horrek desanimatzen zaitu,
halaxe da. Eta hori baino oke-
rrago iruditzen zaizkidan egoer-
ak ere ematen dira. Antolatzaile
batzuek uste dute emakume
beteranoak izateagatik ezin
dugula emakume gazteagoak
baino hobeto egin, eta lasterke-
ta batzuetan emakume betera-
noentzat trofeoa besterik ez
dago lasterketaren irabazlea
izan arren. Zer egin behar dugu
orduan? Senior gisa izena ema-
tea.

Zelan ikusten duzu 'Kirola denentzat' kanpaina? Errealitatean islarik dauka?

Ba ez dakit instituzioen akatsa
den, edo pertsona bakoitzaren
pentsatzeko era den, edo nor-
bera mugitzen den giroaren
eragina den... ez dakit. Benetan
kirolari 'engantxatuta' bazaude
ahalegintzen zara egiten. Erraz-

tasunak emateari dagokionez, egia
esan urriak dira. Seme-alabek kirola
egin ahal izateko ordaindu
behar duzu. Ikastaro gehienak ere,
ordainduta. Bestaldetik, kirolde-
giak masifikatuta daude.

Bizimodua da korrika egitea?


Bizimodua den ez dakit, baina bai
droga baten modukoa, engantxatu
egiten duelako, lasaitu egiten due-
lako. Ondo sentitzen naiz. Inoiz
utzi beharko banio lesio bat dela
medio edo, ziur nago beste edo-
zein kirolean arituko nintzela. Eta
gomendio bera egiten diot emaku-
me orori: edozein kirolean aritze-
ko. Printzipioz, norberaren ongiza-
terako, txapelketak irabazteaz
aparte, noraino iristeko gauza
garen ikusteko, jendearekin erla-
zionatzeko... edozertarako.

Hamar galdera labur

Abesti bat: 'Amor de hombre'
Izen bat: Itxaso
Abeslari bat: Mocedades
Birtute bat: zabala izatea
Gazi ala geza: geza

Leku bat: San Juan de Gaztelugatxe
Mendia ala hondartza: mendia
Amets bat: senarrarekin Madeira irleetara joatea
Janari bat: mariskada bat
Pelikula bat: Richard Gereren edozein

Zer eskatuko zenioke Metro Bilbaori?



JOSEBA
(ABUSU)

GUTXITAN ERABIL-
TZEN DUT ETXETIK
URRUN DUDALAKO.
ABUSUN METROA
URRUNETIK PASA-
TZEN IKUSI DUGULA


ESAN DAITEKE. AUZOAN GELTOKIA JARRI
BEHARKO LUKETE!



ERIKA
(TXURDINAGA)

METRO
BARRUAN
ERRESPECTU
GABE JOKA-
TZEN DUTEN
GUZTIAK ALDA-
TUKO NITUZKE.

BIDAIRIEKIKO BEGIRUNE
EZA AZALTZEN DUTENAK
ETA JARLEKUAK EDO BEIRAK
ZAITZEN EZ DITUZTENAK.



RAUL
(SANTUTXU)

SANTUTXUKO
GELTOKIKO IGO-


GAILUA ASTEBURUETAN GOIZALDEAN
ZABALTZEA GUSTATUKO LITZAIDAKE.
ZABALBIDEN UZTEN GAITUZTELAKO...



LORENA
(URIBARRI)

METROAK ESKAIN-
TZEN DUEN ZERBI-
TZUAREKIN OSO
POZIK NAGO.
AGIAN, ETXETIK
GERTUAGO IZATEA

ESKATUKO NIOKE.



AITOR
(TXURDINAGA)

NIRE USTEZ PRE-
ZIOA JAITSI
BEHARKO LUKE-
TE! GAINERA
ORDUTEGIA

LUZATZEA ONDO ETORRIKO ZI-
TZAIGUN BATZUEI.



SONIA
(OTXARKOAGA)

OTXARKOAGA-
RAINO IGO BEHARKO ZUEN METROAK!
BADIRUDI BERTAKO AUZOKIDEAK AHAZTU
GAITUZTELA.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Egirletatik Txorierriko autobidea arteko bidea 2008an hasiko dute zabaltzen

Artxandako tunelen prezioa aztertuko dutela esan du Iñaki Azkuna alkateak

2008 urtean hasiko ditu Diputazioak Egirleta (Santo Domingo) gainetik Txorierriko autobidera arteko errepidea zabaltzeko lanak. Horrela adostu dute Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak eta Iñaki Azkuna Bilboko

alkateak. Hiribururako gainerako sarbideak hobetzeko lanak noiz eta zelan egin ere zehaztu dute. Gainera, Artxandako tunelei atarramendu gehiago atera nahi diote instituzio biotako agintariok.

Otsailaren 10an jakinarazi zituzten Bilboko alkate Iñaki Azkunak eta Bizkaiko ahaldun nagusia Jose Luis Bilbao Bilboko sarbide berriak egiteko planaren nondik norakoak. Plan berri horrek beste bat ordezkatzeko du, Gorordoren sasoiaren izenpetuta eta edukiei zein epeei erreparatu ezker, oraindik ere hein handi baten bete bakoia.

Plan berriaren lehenengo eginkizun bietarik bat Egirleta edo Santo

Domingo gainetik Txorierriko autobidea arteko errepidea zabaltzeko lanak egitea izango da. 2008an hasiko dute, Enekuriko sarbidea ere amaitzen hasiko diren urtea hain justu. Egirletatik Txorierrirako bidea zabaltzeko lanok hiru atal edo fasetan egingo dituzte.

Obraren helburua gainetik Txorierriko autobidea-
rekiko lotunera arte norabide bakoitzeko karril bina atontzea izango da. 2008an hasiko dute eta, ondo bidean, 2010erako amaituko dute.

Instituzio biok lehenengo eta behin Bilbora sartzeko iparraldeko bideak erabilgarriago jarri nahi izan dituzte, horrela hegoaldekoak arinduko direlakoan. Horrela, behin Enekurikoa eta Egirletako karril binaz jantzi eta gero, auto gehiago hartuko dute eta ilarak ere desagertuko direlakoan daude. Ondorioz, Basurtu eta Zabalburu aldeko autobide sarbideetako trafiki-



ko jarria arinduko dela espero dute.

TUNELAK

Helburu horrekin beste erabaki batzuk hartzekotan daude Diputazioa eta Bilboko Udala. Iñaki Azkunak berak aitatu zuenaren arabera, Artxandako tunelei aprobetxamendu gehiago atera behar zaie. Izan, eurak be sarbideak dira eta oraingoz ez dute auto kopuru polit bat lortu. Inongo duda barik, traba nagusia bidesaria bera da, herri-

tar gehien iritiz lar garestia da eta.

Bada, hegoaldeko sarbideetako trafiko jarria arintzeko asmoz, Azkunak bidesariaren prezioak aztertuko dituztela jakinarazi zuen. Baliteke, esan zuen, merkeago jartzea ere. "Horrelako obra handia ezin da izan hain pertsona gutxienez bakarrik", nabarmendu zuen alkateak. Gainera, bertatik sartu-irtenak auto gehiago egin ezker, Enekuriko eta Egirleta zeharo erabilgarri jarri ezker, hegoaldeko sarbideetako ibilgailuen joan-etorriak murriztu beharko lirateke.

Bilboko sarbide plan berri horrek badauka bestelako eginkizunik. Behin Enekuriko eta Egirletako lanak amaituta, Olabeaga gainean beste sarbide bat zabalduko dute eta ondoren Errekaldeko saihesbidea atonduko dute. Biok gauzatuta, Basurtu eta Errekalde gaineko autobide zubi erraldoiak kendu ahal izango dituzte. Hori, gauzak ondo, 2015 urte aldean gertatuko ei da.

Bilboko Udalak Otxarkoagako etxeetako kanpoaldean paratu gura ditu igogailuak

la 250 ataritako aurrealdean jarri nahi dituzte barrualdean ezinezkoa da eta

Otxarkoagako etxebizitza bloke gehienek ez daukate igogailurik. Ezta igogailurako lekurik. Horregatik, Bilboko Udalak proposatu duen irtenbidea bitxia baina era-

gingarria izan daiteke: etxeetako kanpoaldean paratuko dituzte igogailuak. 12.000 laguntzako konponbidea izan daiteke.

Hirigintza saileko zinegotzi Julia Madrazok (EB) jakinarazi duenez, 3.000 bat pisu dira Otxarkoagan igogailu barik daudenak. Denetara, 247 etarte. Etxeok egin ziren sasoiaren eta egin ziren moduan kontuan hartuta, ez gara harrituko igogailu bakoak direla jakitean. Baina urteak aurrera egin ahala, igogailua paratzeko gogo gero eta handiago izan da auzotarraren artean. Gogo hori geldiarazi du errealitate fisikoak: ez zegoen igogailua non jarri.

Orain Bilboko Udalak alternatiba eskaini die bizilagun horiei. Etxe barruan barik, etxeetako kanpoaldean egin ahal izango dituzte, hormari atxikita. Irtenbide bakarra izateaz gain, erai-kin horiei beste itxura bat emango die, modernotasun ukitu bat hain justu.

Kaleari espazioa hartu ahal izateko Otxarkoaga aldeko hirigintza arauak aldatu ditu Bilboko Udalak. Egia da auzoko bazter askotan lekua egon badagoela. Are gehiago orain, auzoko alderdi handi bat urbanizatu dagoela. Hala ere, sei etxe igogailu barik geldituko dira, toki ezaz. Beste zortzik badaukate.

LAGUNTZAK

Otxarkoagako bizilagunek igogailuak ipintzen ani-



matzeko, Bilboko Udalak dirulaguntza berezia emango die. Bilbotar guztientzat dira laguntzok baina Otxarkoagako etxebizitzentzat handiagoak izango dira, obraren prezioaren %20 arte. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ere obra horientzako laguntzak ematen ditu. Horren ondorioz, igogailua paratzeko gastuaren %25 instituzio bion lepotik geldituko da.

Bestalde, Bilboko Udala, Udal Etxebizitzak elkartearen bidez, Otxarkoagako pisu askoren ugazaba da. Bada, Julia Madrazok jakinarazi duenez, Udal Etxebizitzak pisu horietako komunitateetan igogailua paratzearen alde agertuko da eta, jakina,

obra egin ezker, dagozkion kuotak ordainduko ditu.

Igogailuen premia handia da, egia esan, Otxarkoaga aldean. Izan ere, etxe altu-altuak ez badaude ere, ez dira gutxi sei edo zazpi pisu igo behar dituzten bizilagunak. Gainera, auzoa bera aldatsean dagoela kontuan hartuta, batzuentzat lan nekeza izaten da etxera itzultzea. Batez ere, ume txikiekin edo zama handiekin joan behar dutenentzat eta baita adineko pertsonentzat ere.

ASTE SANTUA (12-17)

AMSTERDAM	358,00 Euro
PARIS	253,00 Euro
LISBOA	265,00 Euro
SALOU	231,00 Euro
GRANADA	280,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak
GRUPO STAR
www.ibiltari.com
Iturrigaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 26
48004 SANTUTXU - BILBO



ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
ARJICO - MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**



KARMELO APARKALEKUA EGITEN HASI DIRA.-

Santutxuko Karmelo kaleko aparkalekua egiten hasi dira. Lanak otsailaren erdian hasi ziren eta 2007ko ekainean amaituko ei dira. Indusketak hiru hilabete barru hasiko dituzte. Aparkalekuak 306 auto-erentzako lekua edukiko du, lau solairutan banatuta. Karmelo eta Iturriaga kaleen arteko loturan biribilgune edo errotonda bat paratuko dute.

TXURDINAGAKO EGOITZAREN ALDE.-

Txurdinagako zaharren egoitzako beharriek euren protestekin jarraitu dute eta 4.000tik gora sinadura lortu dituzte. Diputazioaren aurrera eraman zituzten otsailaren 21ean. Jakina denez, Diputazioak zaharren egoitza itxiko ote duen beldur dira langileak. Sindikatuek zerbitzu publikoak pribatizatzen ari direla salatu dute.



OTXARKOAGAKO HAURTZAINDEGIAN LAPURRETAK.-

Azken hilabeteen hiru bider sartu dira lapurrak. Urtarrilaren 31ko gauean birritan sartu ziren. Lehenengoa gaueko 11etan, eta bigarrena, goizaldeko 5etan. Azkena otsailaren 13an, goizaldeko 4ak aldera. Ez dute gauza handirik lapurtu, baina bai triskantza handia egin zuzendariaren bulegoan (bere paper guztiak barreiatuta...) baita ume txikiak egoten diren geletan. Langileek euren ardura agertu dute, inork ez duelako zaintzen haurtzaindegia gauaz eta asteburuetan, eta egunen baten lanera joan eta lapurrekin topo egingo ote duten beldur dira.

SANTUTXUKO INAUTERIAK, DATORREN ASTEBURUAN.-

Martxoaren 4 eta 5ean ospatuko dira Santutxuko inauteriak. Zapatuan, goizez dan-tzak eta arratsaldean gargantua, ume jaia eta Gaztedi dantza taldearen Luzaideko inauteria. Domekan, eguerdiko 12etan mozerro kalejira eta ondoren herri bazkaria Karmelo ikastolan. Arratsaldean, koreografia lehiaketa eta dantzaldia. Antolatzaile, urtero lez, Santutxuko Familia Elkar-tea.



METRO BIDAIARIK ERABILIENA, ABANDO-SANTUTXU.-

Metro Bilbaok 2005ean ere bere bidaiari kopurua igo zuen. Gorakada Bilbo barruko lerroan eta ezker aldekoan igarri zen, eskuin aldekoan jaitziera leun bat gertatu zen bitartean. Pertsona gehien batzen duen bidaiaria mahatsorriekin lotuta dago, Abando eta Santutxuko geltokien artekoa izan zen eta.

ATENTATUAK BOLUETA ETA SANTUTXUN.-

Azken hilabeteen atentatu bi gertatu dira Begoñako errepublika zaharrean. Urtarrilaren 29ko goizaldean Santutxu kaleko Inemeko bulegoetan paratutako lehergailuak eztanda egin zuen, er-tzain bati zauri arinak eraginez. Otsailaren 22an, oster, Boluetako Barrenechea y Goiri enpresan jarri zuten bonba eta leherketaren ondorioz kalte material handiak eragin zuen. Hala alderdi politiko gehienek nola Bilboko Udalak gogor gaitzetsi dituzte atentatuok. Argazkian, Boluetako enpresan eragindako zuloa.



D E R R I K A R I A K

D E R R I K A R I A K

OTEROS (1038 M.) URBINA EZA - ZUATZU

Arabako Izarra herrian hasiko gara. Handik Zuatzu-Kuartango herrirako bidea hartu eta herri horretara heldu baino lehen Urbina-Eza herria dago. Han, eliza ondoan utzi genituen autoak.


Ur askaren eta iturriaren ondotik abiatuko gara gorantz. Burdinazko (A) ate bat gurutzatu ondoren, laster ikusiko dugu herriko ur gordailua. Ezkerrean pinudi bat dago bazterrean hesi bat duelarik. Bere alboan dagoen bidetik igoko gara aipatu dugun hesia amaitu arte.

Pixka bat geroago ubide batekin egingo dugu (B) topo (gu joan ginean ez zekarren urik, lehor baitzegoen). Ezkerretarantz eta gorantz dagoen harrizko bideari jarraituz eta goialdean zenbait biragune eginez, lepo batetik goiko sapaldara iritsiko gara. Norabide egokiena eskuinaldekoa da, baina apur bat barrutik. Beraz ez gailurreriatik. Laster ur putzu bat (C) aurkitu beharko dugu eta hortik zuzen jarraituz bizkar batera igoko gara.

Bizkar horretatik garrantzi handia duen erreferentzi puntua ikusiko dugu, bertakoek La Caseta deitzen dute, baina izan artzain aterpea da. Alderdi honi Askiegi deitzen zaio.

Aipatu dugun bizkarretik pixka bat aurrerago ezkerretik datorren basabide bat aurkituko dugu. Han ikur gorriak ikus daitezke. Beraiek jarraituz esandako aterperaino helduko gara (D).

Leku oso zabala denez, basabide antzeko batzuk nahasten dira. Guk ikurrak dituen basabidea aurkitu beharko dugu. Bizkar pare bat igaro ondoren,



eskuin aldean ibarbide batean ur putzu bi (E) ikusiko ditugu (abereentzako uhaskak dira),

Beste muino batetik igaro ondoren, urrun eta eskuinaldean lortu nahi dugun tontorra ikus daiteke bere erpin geodesiko eta guzti. Baina ez gara joango zuzen baizik eta oso bira handi bat eginez. Dena dela, aipatu ditugun ikur gorriak lagungarri onenak izango dira bertara heltzeko. Erpin geodesiko ondoren txartel kutxa borobil bat dago.

Aterperaino ordu bat eta 15 minutu eta aterpetik tontorrera 30 minutu.

Sastreria EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Telefonoa: 944 128 714 E-Mail: Iban.Lopez@navegalia.com


HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
O.P.E.: 029/97
94 412 82 74

MESÓN
TURETXE
Santutxuko poteo gunean

MARTXOAREN 24a ostirala 19:30ean
KONTZERTUA

THE USKI'S
"Itxosun zarati"

ETXE
"Zatoz nirekin"



BILBO ROCK ARETOAN **SARRERA 2 EURO** **DOST EUROKO BONOIA LAU EKITALDIETARAKO**

HARRAPA ZANK

Bilbao **BILBAO BILBAOZ** **BONOIA EROSIKA GAZTETXULO** **ALDIZKARIAREN HIRU HILEKO HARPIDETZA DOAN**



APIRILA ARTE, MARTITZENERO, UMEENTZAKO EUSKARAZKO IKUSKIZUN BANA BEGOÑAKO AUZO-ETXEAN

'IKUSI ETA IKASI' PROGRAMAN PAILAZOAK, ANTZERKIA ETA IPUIN KONTALARIAK EKARRIKO DITUZTE

Pailazoak umeen aurrean Etxebarria parkean. Eskola Publikoaren Jaia.

Apirilaren 4a arte astero euskarazko ikuskizun bat eskainiko die Begoñako auzo-etxeak ume mahatsorriei. 'Ikusi eta ikasi' programa martxan jarri du Bilboko Udalak eta bigarren edizio honetan iaz baino beteago eta luzeago dator. Pailazoak, antzerkia, zirkoa, ipuin kontalariak eta txotxongiloak etorriko dira Santutxu eta Txurdinaga auzoak elkartzeko leku horretaraino. Tiboliko eskolan ere izango da ikuskizun bat.

Testua: L. Albarez
Argazkiak: Iñigo Azkona

'Ikusi eta ikasi' programa Bilboko Udalak abiarazi du, Euskara Elkartearen Topagunearekin elkarlanean. Berez, Begoñako auzo-etxeaz gain, Deustuko Bidarte jauregia, Zazpi Kaleetako La Bolsa, Errekaldeko eskola eta Tiboliko eskola izango dira ikuskizunak bere baitan hartuko dituzten leku hautatuak.

Denetara hogeita sei ikuskizun programatu dituzte hiru eta hamabi urte arteko ume eta gaztetxoentzat. Helburu nagusia, hain justu, ume eta gaztetxo horiei euskaraz egiteko erraztasunak ematea da. Alde batetik, euskarazko produkzioak ezagutzera eman gura dizkiete eta, beste aldetik, umeek eurek euskaraz egiteko aukera gehiago eduki dezatela.

PIRRITX ETA PORROTX
Begoñako auzo-etxeko ikuskizunak martitzenero egingo dituzte, arratsaldeko seietan hasita. Horrela, martxoaren

7an Zenbat Gara taldeak 'Amama Pantxikaren altxor ezkutua' antzeztuko du. Astebete geroago, martxoaren 14an, Ainhoa Irazu ipuin kontalariaren txanda izango da. 'Kasketa ipuinak' kontatuko ei ditu.

Martxoaren hirugarren astean, hilaren 21ean hain justu, Begoñako auzo-etxean Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak izango dira. 'Kintxo eta Porrotx' espektakuluarekin etorriko dira. Astegarranean, Ten Pinpilinpauza antzerkiak 'Gulliver, mendia adinako gizona' antzeztanaz azalduko da Begoñako udaltegian.

Eta apirilean sartuta, Auskalo taldeak 'Skatroiak' ume berbena antolatuko du apirilaren 4an. Horixe izango da programaren despedida hain zuzen.

TIBOLIN BE BAI
Begoñako udaltegian ez ezik, Tiboliko eskolan ere izango da zer ikusia. Ikuskizun bakarra izango da, martxoaren 15ean, arratsaldeko seietan hasita. Egun horretan Hankatxo antzerki taldeak 'Hitzak patriketan' antzeztana eszenaratuko du.



ESKOLETAN ERE SANTA AGEDARI KANTARI.-

Aurten bezperaren bezperan kantatu dituzte eskolaume mahatsorriek Santa Agedaren omenezko bertsoak. Eskola eta ikastola gehienetan ikasle taldeak atera ziren makila hotsa eta koplak lau haizetara zabaltzeko. Argazkian, Txurdinagako eskola.

IKASBIL.NET EUSKARA IKASTEN DUTENENTZAT.-

HABEk sarean ipini ditu, leku baten bilduta, euskaraz ikasten dutenentzat hainbeste material eta informazioa. Martxan jarri orduko 8.000 eduki didaktiko (idatziak, ariketak, entzungaiak, bideoak,...) sartu dituzte atari horretan. Gura duenak jo beza helbide honetara: www.ikasbil.net

HABE
ikasbil
www.habe.org

www.ikasbil.net

Euskaraz ikasteko informazioa eta baliabideak



ESKOLAK EUSKALDUNTZEKO SINADURAK.-

Euskal Herri osoan bezalaxe, gure auzoetan ere hasi dira eskolak euskalduntzearen aldeko sinadurak batzen. 'Bai eskolak euskalduntzeari!' kanpainak lau haizetara zabaltzeko gura du gurean eskolaren eginkizun nagusietako bat euskalduntzea izan behar duela. Argazkian, Uribarriko eskola.

BERTON ALDIZKARIA INTERNETEN:

www.asapala.org
www.topagunea.org

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
www.bilbohiria.com

PUNTO DE MIRA ROCK TALDE MAHATSORRIARI IZENA OSTU DIOTE



Madrileko talde bat Punto de Mira izenarekin erregistratu da SGAEn

Bost urte musika munduan eman eta gero, musikari mahatsorri koadrila batek izen artistikoa lapurtu diotela jakin du. Punto de Mira rock talde dira, hainbeste kontzertu emanda daude eta disko bat argitaratuta ere badaude. Hala ere, eskubideen kontua eta SGAEn jokabidea ontzat eman ez eta jaramonik ez zioten egin. Orain Madrilen beste musikari batzuek Punto de Mira izena erregistratu dute eta, lege aldetik, eurena da.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Punto de Mira

Punto de Mira taldea 2000 urte amaieran sortu zen eta taldekideak lehenagotik beste talde batzuetan ibilitako musikariak ziren, Imanol, Mikel, Raul, Edu eta Aingeru, hain zuzen. Lehen kontzertua Bilborroken eskaini zuten 2001ean. Geroago bateria aldatu zuten eta Eduren ordeiz, Jorge sartu zen taldean. Lehen kontzertua bateria berriarekin 2004an Aste Nagusian eman zuen boskoteak eta harez geroztik hantemenka ibili dira musikaz blai.

Talde horrek hainbat lehiaketetan hartu du parte Punto de Mira izenarekin, Kafe Antzokiko 'Emergenza' lehiaketan finalera heldu ziren, Euskadi Gaztearen maketa lehiaketan hamargarren geratu ziren,...

Punto de Mira izeneko disko autogestionatuta atera zuten eta Mahatsorriko boskote honek lanean jarraitu zuen. Iaz bizpahiru kontzertu egin zituzten hileko. Azkenak Zorrotzako gaztetxean eta Trespadermen izan ziren. Dena ondo zihuan mezu elektroniko bat jaso zuten arte. Izan ere, iazko azaroran Madrileko irratsaio baten, 'Trovador urbano' izeneko irra-

tsaioan hain zuzen, Punto de Mira izeneko talde bati elkarrizketa egiteko zeudela esan zieten, baina taldekideek ezer ere ez zekitela esan zieten.

Beraz, errakuntza bat zelakotan erantzun zioten mezuari, baina ez zegoen errakuntzarik, izen bateko beste talde bat sortu baitzen Madril aldean. Javier Mira izeneko gitarra joleak sortutako talde bat zen. Mahatsorriek esan dutenaren arabera, "antza, nahiko ezaguna da, Madrilekoa eta heavy musika jotzen du. Talde ezberdinetan jo duen musikaria da eta ondotox daki nola doazen gauzak. Gu berarekin jarri ginen kontaktuan informatzeko eta esan genion izen berbera geneukala, eta berak esan zigun erregistrora joan zenean ez zegoela inor izen horrekin; beraz, izena erregistratu zuen".

Taldekideek diotenez, "horrez gain, aitzakia moduan esan ziguten bazekitela gu existitzen ginela eta saiatu zirela gurekin kontaktuan jartzen baina ezinezkoa egin zitzailela, beraz, aurrera jo zuten". Punto de Mira Mahatsorriko taldeak web orria du eta errez ager daiteke Interneten beraien izena sakatzean.

SALAKETA

Mikelek salatzen duenez, "arrain handiak txikia jaten duela argi utzi dute, musika mundua nola dagoen ikusita gure artean izorratzen ez ibiltzeko mehatxatu ziguten. Guk ez dugu erantzun, gureari eutsi diogu, baina taldean nolabaiteko ezinegona eragin du egoera horrek". Denetarik pentsatu dute Bilboko taldekoek eta oraindik ez dute erabaki zehatzik hartu. "Haiek legea alde daukate, copyrighta erosi dute eta", gehitu du Mikelek.

Eta orain zer? Bilboko Punto de Mira jadanik ezin du diskoetxe batekin lanik egin izen honekin. "Diskoetxe batekin elkarlana hasiz gero izena aldatzera behartuta gaude, nahiz eta izen hori geuk erabili erosi dutenek baino lehenagotik. Guk ilusio handia geneukan eta daukagu gure lana zabaltzeko baina ikusi dugu bekoki handiaz gure identitatea ostu digutela eta legalki ezin dugu ezer ere ez egin arrazoia haiek izango luketelako", esan dute taldekideek.

'Punto de Mira' Gaztesareak kaleratutako talde gida batean agertzen zen eta hainbat komunikabideetan eta jendaurrean ere agertu da izen horrekin. "Ez dugu gure izena erregistratu baina ez genuen uste sei urte eta gero halakorik gertatuko zenik. Ez diogu



garrantzirik eman orain arte eta honekin ikasi dugu zer gerta daitekeen", nabarmendu du Imanolek.

AURRERA

"Guk salatu nahi dugu egoera hauei aurre egiteko egitura alternatiborik ez egotea. Halakorik ez gertatzeko bide bakarra SGAEn erregistratzea ote da?", galdetu du Aingeruk. "Nik ez dut halakorik entzun orain arte eta gainera guri gertatu behar...", gaineratu du. "Bitxia ere bada. Gertatu zaigu, 'Heavy-rock' aldizkarian Alfarrock festibalaren inguruan Punto de Miraren gaineko kritika bat agertzea eta handik bi hilabetera sortu berri zen Madrilgo taldeari buruzko informazio argitaratzea", aipatu dute musikariek.

Gertatutakoak gertatuta ere, momentuz, mahatsorriek orain arteko izenarekin jotzen jarraituko dute eta hainbat hitzordu dituzte konfirmatzeko. Hala ere, hilak 18an Logroñon eta 31an Oñatin joko dute; ekainaren 10ean Erromoko gaztetxean ere dasta dezakezue beraien musika.

GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodidak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

Dordoka
TABERNA
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Txantxetan bale, baina serio berba eginda: zelan da posible zuretzako danak, dan-danak, ederrak izatea?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Otsoaren hilabetea agortu da eta orain martia dator. Giroa berotzen hasi da, itsasaldean batez be.



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Ze boteloi eta ze boteloi-ondo! Hori litrona da, li-trona. Galdetu, ostantzean, Euskaltzaindiaren zalantzak argitzeko zerbitzuari.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Etxe epel-epela dekozu bai, baina kalera gehiagotan be urten zeinkez... Negua gogorra baina ederra be bada.



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Rockanrolaren azken defendatzailea izatekotan zagoz. Zeure inguruan denak diskotekazale egin dira baina ez etsi... Kalekumeak bueltatuko dira!



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Azterketak egindakoan, a zelako lasaitua, e? Ba, egon lo eta jango dozu mehe. Itzar-itzarrik egon behar dozu!



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ligetako teknika horregaz laster zara ikastaroak emoten! Arrakastarik bape, baina itzel graziosoa!!



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Ez da izango! Bikini operazinoa martxan jarri behar dozu? Oraindino negu betean gagoz, hotzari aurre egiteko koipe erreserbak egiteko sasoia da!



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Datozan egunotan pertsona berezi bat ezetuko dozu. Kontua da berezia dala jakingo ete dozun...



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Kontzerturik kontzertu ibilten zara aste azkenetan. Bariku, zapatu edo domeka, igoal da. Musika amatazen danean hasten jatzu aste barrua.



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Gimnasioan jo eta su zabiltz. Eta gero? Salda bero!



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Odol tantak, izerdia eta malkoak. Hori da panorama! Ea Clementek esan legez martirako dana konponduta dagoan...

agenda

MARTXOAREN 4-5
SANTUTXUKO INAUTERIAK

MARTXOAK 7
ZENBAT GARA TALDEAREN
'AMAMA PANTXIKAREN ALTXOR
EZKUTUA'. BEGOÑAKO
UDALTEGIAN. 18:00ETAN.

MARTXOAK 9
LOR ETA IHESBIDE. KONTZER-
TUA. KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MARTXOAK 10
HERRIRA PLATAFORMAREN
MANIFESTAZIOA. RITXI PLAZAN.
20:00ETAN.

MARTXOAK 14
AINHOA IRAZU IPUIN KONTALA-
RIA. BEGOÑAKO UDALTEGIAN.
18:00ETAN.

MARTXOAREN 17-26
DEUSTUKO SAN JOSE JAIK.

MARTXOAK 18
SAGARDOTEGI TXANGOA.
BERBALAGUNEKIN. ZUMAIA,
ASTEASU ETA AZPEITIA.

MARTXOAK 19
CHARLIE MUSSELWHITE. KAFE
ANTZOKIAN. 20:30EAN.

MARTXOAK 21
PIRRITX ETA PORROTX. BEGOÑ-
KO UDALTEGIAN. 18:00ETAN.

MARTXOAK 24
THE USKIS. ROCK KONTZERTUA.
BILBOROCK ARETOAN. 19:30EAN.

MARTXOAK 30
ANARI. KONTZERTUA. KAFE
ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

APIRILAREN 1-7
SANTUTXU-TXURDINAGAKO
EUSKARAREN ASTEA.

Martxoak 2
Osteguna

IRRINTZI TXOTXONGILOAK
"Lau anaia umezurtzak"
18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean

Martxoak 4
Larunbata

ANTTON IRUSTA ipuin kontalaria
"Lau haizetara kontari"
11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegia

Martxoak 7
Asteartea

ZENBAT GARA ANTZERKIA
"Amama Pantxikaren altxor ezkutua"
18:00etan, Begoñako udaltegia

Martxoak 9
Osteguna

BEHI BI'S TXOTXONGILOAK
"Marilo beti lo"
18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean

Martxoak 11
Larunbata

POXPOLO ETA MOKOLO PAILAZOAK
"Zirkoa"
11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegia

Martxoak 14
Asteartea

AINHOA IRAZU ipuin kontalaria
"Kasketa ipuinak"
18:00etan, Begoñako udaltegia

Martxoak 15
asteazkena

HANKATXO ANTZERKIA
"Hitzak patriketan"
18:00etan, Bilboko Tiboli eskolan

Martxoak 16
Osteguna

MAITE FRANKO ipuin kontalaria
"Halabazango ipuinak"
18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean

Martxoak 18
Larunbata

GORRINGO ANTZERKIA
"Antonino Apreta"
11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegia

Martxoak 21
Asteartea

PIRRITX ETA PORROTX
"Kintxo eta Porrotx"
18:00etan, Begoñako udaltegia

Martxoak 23
osteguna

GORAKADA ANTZERKIA
"Titirikontu-kontari"
18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean

Martxoak 25
Larunbata

PELLO AÑORGA ipuin kontalaria
11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegia

Bilboko haur kultur zirkuitua

**IKUSI
ETA
IKASI**

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

BILBAO
EUSKARAZ